

Aurtengo azaroaren 25ak pandemia baten erdian harrapatu gaitu. Hilabete gutxitan agerian geratu da Mugimendu Feministak aspaldi aldarrikatzen zuena: sistema hau ez da jasagarria eta ez da inoiz jasagarria izango kapitalaren agindutara dagoen bitartean.

Argi dugu pairatzen dugun krisia ez duela soilik birus honek eragin, azken urteetako politika neoliberalen ondorioak sufritzen ari gara. Errealitate hau argi eta garbi ikusi dugu pandemia heldu zenetik. Covid19-aren harira hartutako neurriak kontrol sozialean, herritarron infantilizazioan eta kapitalaren etekinen defentsan oinarritu dira, herritarron eta bereziki gazteen bizitzan gaineko prekarizazioa areagotuz. Osasunaren izenean, aisialdirako, harremantzeko zein antolatzeko baliabideak eta espazioak murriztu dituzte, garraio publikoan segurtasunez bidaiatzeko edota duintasunez ikasteko eskubidea egunero urratzen den bitartean. Interesa argia da: **produkzioaren katea ez dadila gelditu, kosta ala kosta.**

Egoera honetan, neska* gazteok jasandako indarkerietako asko areagotzen ari dira: guk egindako lan feminizatu prekarioetan lan kontraturik gabe aritzen garenez, lana galdu eta lan eskubiderik gabe geratzen ari gara. Etxetik alde egitea gero eta zailagoa bihurtzen ari da eta hezkuntzari dago-kionez, momentu honetan era duinean ikasteko eskubidea ez dago bermatua. Etxean edo lanean egotea ez den beste guztia debekatu dutenez, gazteok aurrez aurre harremantzeko aukerarik gabe geratzen ari gara, harreman osasuntsuak eraikitzeari oztopoak jarriz.

Horren ordez, gure denbora sare sozialean ematera garamatzate, horrek neska* gazteontzat suposatzen duen indarkeria gehigarriarekin. Eskubide zibil eta politikoak guztiz murriztuta daude eta jardun politikoarekin jarraitzeko mila traba jartzen dizkigute, gu geldiarazi nahian. Hori gutxi balitz, gazteok egin nahi izan gaituzte pandemiaren erantzule, masa komunikabideek eta agintarieek egindako manipulazio mediatikoaren bidez.

Garai nahasi hauetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da neska* gazteok saretu eta antolatzea heteropatriarkatuaren indarkeria guztiei aurre egiteko. Gure bizitzak "esentzialera" murriztu nahi dituzte, baina guk behin eta berriro aldarrikatuko dugu borroka feminista funtsezkoa dela eta lehen lerroa eramango dugula bizitzak erdigunean jartzeko, bizitzak baitira esentzialena. Kapitalaren alde egiten duen eta oinarri zapaltzaileak dituen sistemak bakartuak, obedienteak eta isilduak nahi gaitu. Horregatik, orain inoiz baino gehiago, neska* gazteok sistema heteropatriarkal kapitalistari autodefentsa feministarekin egingo diogu aurre, gure artean saretuz, antolatuz, komunitatea ehunduz eta elkar zainduz.

"NORMALTASUN" HETEROPATRIARKALAREN AURREAN

**KALEAK
HARTUKO
DITUGU**

**EUSKAL HERRIKO NESKA* GAZTEOK ELKAR ZAINDUZ
AUTODEFENTSA FEMINISTA**